

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3042

418/2023 EBAZPENA, martxoaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Erdi Mailako Teknikari lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Erdi Mailako Teknikari kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundee-tako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020/2021/2022an eta Egonkortzean iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1819/2022 Ebazpenaren bidez, Erdi Mailako Teknikari lanbide-taldeko Elektromedikuntzako Erdi Mailako Teknikari kategoriaren oinarri espezifikoak onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.— Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAA-n argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

ERANSKINA

ELEKTROMEDIKUNTZAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARI KATEGORIA

Batzordeburua:

- Titularra: Iñigo Olagüe Bilbao.
- Ordezkoa: Maria Begoña Gonzalez Molinero.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Nestor Pierola Eguia.
- Ordezkoa: Francisco Alejandro Urien Ferrero.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Ignacio Brocal Hernandez.
- Ordezkoa: Carlos Lorenzo Perez Gomez.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Jon Iñaki Muzas Eisenhofer.
- Ordezkoa: Igor Astarbe Escudero.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maria Esther Elvira Andres.
- Ordezkoa: Juan Jose Alegre Alegre.

Idazkaria:

- Titularra: Miguel Angel Bermudez Diez.
- Ordezkoa: Silvia Dabouza Acebal.